

*I*kastetxeko *U*rteko *P*lana

HELBURUAK

1- Ikastetxeko Proiektu Digitalaren ezarpena

jarduerak <i>actividades</i>	arduraduna-agentek <i>responsable y agentes</i>	denboralizazio a <i>temporalización</i>	baliabideak <i>recursos</i>	ebaluazioa: adierazleak eta datak <i>evaluación: indicadores y fechas</i>
Batzorde Digitala sortzea	Richard Medina	Irailak 6	Proiektu Digitala	Batzorde Digitaleko kideak identifikatzea eta eginkizunak ezartzea
Berritzegunetik jasotzen dugun mentorizazio formakuntzetara joatea	Richard Medina	Irailean		Bileretara joatea eta bertan eskatzen dutena egitea
Proiektu digitala web orrialdean eskuragarri izatea	Batzorde Digitala	Iraila	Proiektu digitala	Web orrialdean dagoela ziurtatu.
Klaustroan Proiektu digitala aurkeztea	Batzorde Digitala	Irailak 4	Proiektu digitala	Klaustroko akta
Klaustroa Irakaslegoaren konpetentzia digitala B2 Ubideera apuntatu eta mentorizatu.	Batzorde Digitala	Deialdia zabaltzerakoan		
Proiektu digaitalean jarritako ekintzak garatzea	Batzorde Digitala	Ikasturtean zehar	Proiektu Digitala	Proiektu digitaleko ebaluazioan.
Eskolako Diagnostikoa egitea	Batzorde Digitala	1. hiruhilekoan	Ikanos Testa	Txostena jasotzea
Eskolako diagnostikoaren emaitzak aztertzea	Batzorde Digitala	2-3 hiruhilekoetan	Ikanos Txostena	Datorren ikasturterako helburuak zehaztea

HELBURUAK

2-Curriculum Berria garatzea.

jarduerak	arduraduna-agentearik	denboralizazioa	baliabideak	ebaluazioa: adierazleak eta datak
Klaustroari lehenengo ezagutzak	Zuzendaritza Taldea	1. eguna	lazko formakuntzan lortutako materiala	
Curriculum berriko formakuntza	Ikasketa Burua	Irailak 6	Hezigune	
Ibaizabal argitaletxeak ematen duen formakuntza egin	Zuzendaritza taldea	urriak 17	Edelvives Digital Plus	
Ebaluazio konpententziaka egitea	Zuzendaritza Taldea	1. hiruhilekorian	Inika	2. ebaluaketako txostenak
Ebaluaketa betetzeko formakuntza	Zuzendaritza Taldea	Urtarrilak 8	Inika	
Hekuntza sailatik eskeintzen den formakuntzetara joatea.				

HELBURUAK

3-Hezkuntza-komunitatea kontzientziatzea eta sentsibilizatzea ikastetxeko bizikidetza egokiaren garrantziaz eta hobetzeko prozedurez

jarduerak	arduraduna-agentek	denboralizazioa	baliabideak	ebaluazioa: adierazleak eta datak
BAT Taldeko formakuntza	Hezkidetza Batzordea	Irailean		BAT Taldeko kide berriak formakuntza jaso duela ziurtatzea
Azaroak 25	Hezkidetza Batzordea	Azaroa		Indarkeriaz eta berdinen arteko harremanaz hausnarketa egin da
Familia eta 5 . mailakoentzat Genero Tailerra	Hezkidetza Batzordea	Azaroa	Berdindu	Berdinduk eskainitako tailerra egin da.
Publizitate Sexista	Hezkidetza Batzordea	Abendua		Publizitatean dauden estereotipo sexistetaz hausnarketa egin da
Emakume zientzialarien eguna	Hezkidetza Batzordea	Otsaila		Historian zehar emakume inportanteetaz hausnarketa egin da
Martxoak 8	Hezkidetza Batzordea	Martxoa		Martxoak 8 zergatik ospatzen den jakitea

Esperientziak, programak eta proiektuak

PROIEKTU HIRUELEDUNAK: Eskutitza, Errezeta, Ipuina , Berria eta Hauteskundeak

Bost proiektu hauek hiru hizkuntzetako helburuak ikasteko erabiltzen dira, ekintza berdinak burutzen dira hiru hizkuntzetan, honek lantzen dena erraztasunez barneratzeko aukera ematen du, hizkuntza transferentziak erraztuz.

Euskara eta Euskal kultura bultzatzeko programa (Ermuko ohiturak barne)

Ekintza motibatzaile ezberdin burutzen dira Euskara bultzatzeko programa honetan. Ermua ez da Herri Euskalduna, eta biztenleriak ez du, orokorrean euskaraz hitz egiten, horrexegatik euskarari garrantzi handia ematen diogu, eta Ermuan, Euskararekin zerikusia duten ekintza ezberdinetan parte hartzen dugu,

San Martin Azoka Ermuan egiten den Azokarik garrantzitsuena da, eta Herri osoak parte hartzen du.

Eskolan, Azokak duen oihartzuna aprobetxatuz, ardatz motibagarritik abiatuz, hizkuntza, matematika, artistika gizarte eta natur zientziak eta talde lana bezalako arloak lantzen ditugu.

San Martin eguna azaroko 2. Larunbatean denez, egun horretan 6. Mailakoek postu bat jartzen dute eskolako familiek ekarritako produktuak saltzen.

Juanita Ibaibarriaga: Ermuko literatur saria, Ipuina proiektua lantzen dela aprobetxatuz, ekintza motibatzaile hartzen da literatur sari hau, ikasleek beraien ipuina ekoiztu eta aurkezten dituzte.

Inauteriak: Eguen zuri, hartza eguna eta kalejira. Ermuan aurrera eramaten diren ekintza hauetan aktiboki parte hartzen dugu, bai antolaketan, baita eskolako ume guztiei hartzaren koplak irakasten. Eskolak kalejira antolatzen du asteartean, horretarako gai bat adosten da ikasturte hasieran eta ikasleen partaidetza eskatzen da kankak eta dantzak aukeratzeko. Nagusiek txikiei erakusten dizkiete dantzak.

Olentzero: Olentzero elementu motibatzaile hartuta, gabonetako ohiturak eta kankak lantzen dira, eskutitza ere idazten zaio eta, hiruhileko azken egunean, Olentzero menditik etortzen da umeein egotera.

Tinko Filmeak: Ermuko antzokira joaten gara Euskarazko filmeak ikustera Tinko egitasmoari esker.

Bertsolaritza: Astean behin, bertsolaritza tailerra lantzen dute 6. Mailakoek, Euskal ohiturak landuz.

Durangoko eta Ermuko liburu eta diska azoka: 2 azoka hauetara joaten gara Euskal kultura umeei hurbildu nahian

Esperientziak, programak eta proiektuak

Ingurumen Ekintzak

- **Eskolako bidea:** Urtean bitan. Jasangarritasunaren irizpideak kontuan hartuta mugikortasuna Europako astean eta udaberrian garatzen dugu familia bolondresen laguntzaz.
- **Azterkosta:** Debako kostaldea aztertzea ekintza motibatzaile hartuta gure ingurumena zaintzeko hausnarketa egiten da.
- **Udaletxeak eskeinitako ingurumen Tailerrak**

Bizikidetza

- **Itsuen mundura hurbilduz** Ikasle goa gure gizartean dauden desberdintasunetaz jabetu nahian, O.N.C.E. ko kide batzuen bisita dugu ikastetxean. “Somos diferentes no indiferentes” proiektua landuko dugu aurten, honetan Bullynaren kontrako kontzientzia hartzeko ekintza ezberdinak gauzatuko dira, “Enseñar a prevenir, detectar y a actuar en grupo ante las diferentes situaciones de acoso desde el diálogo y el respeto” O.N.C.E. k garatutako Unitate Didaktikoa ardatzaz hartuz.
- **Denak berdinak, denak desberdinak.** Ikasle goa gure gizartean dauden desberdintasunetaz jabetu nahian, gure inguruko dibertsitate kultural lantzen dugu, eta maiatzaren bukaeran ospatzen den Ermuko Interkulturalitate jaiaren parte hartzen dugu plaza apaintzeko muralak egiten.
- **Saharako karabana solidarioa:** Ikasle goarekin elkartasuna landu nahian, Ermuko Saharako Lagunen Elkarrekin antolatutako janari bilketan parte hartzen dugu.
- Hemen, beste lurraldeetan dagoen egoeraz jabetzen dira gure eskolako umeak, beraien jarrera aldatu nahian, batez ere kontsumismoaren aurrean.
- **Hezkidetza Proiektua:** Ekintza ezberdinak burutzen dira:
 - Azaroa: Indarkeriaren kontra.
 - Abendua: Jolas ez sexitaren kanpaina.
 - Martxoa: Berdintasuna.

Esperientziak, programak eta proiektuak

Ingelesa bultzatzeko programa

- **Halloween:** Ingelesezko datarik ospetsuenetarikoa elementu motibatzaile hartuta, egun honen inguruko ohiturak lantzen dira.
- **Hitzaldiak** Kurtsoan zehar ingelesezko hitzaldi ezberdinak egoten dira

Irakurzaletasuna bultzatzeko programa

- **Liburutegira bisitak:** HHkoak hilean behin eta LHkoak hiruhilean behin liburutegira hurbiltzen dira Liburutegiko liburuak ikusteko eta maileguan hartzeko. Honen helburua ikaslegoari liburutegia hurbiltzea da.
- **Idazleak eskolan:** Ziklo guztietan idazle bat etortzen da gelara bere liburuei buruz hitz egitera. Liburua gelan lantzen da idazlea etorri baino lehen eta liburuari buruzko galdera ezberdinak egiten zaizkio, ondoren ikasle bakoitzari bere alea sinatzen die.

Esperientziak, programak eta proiektuak

OSASUN PROGRAMA

Ekintza ezberdinak burutzen dira::

3.a- Hortz higiena

Ikaslegoa Hortzeak garbi izatearen garrantziaz jabetu nahian, jantokian geratzen direnek hortzak garbitzeko tarte bat dute.

3.b- Elikadura osasuntsua

- 2 urteko gelako ikasleek, 3. hiruilekoan, fruta ekartzen dute hamaiketakoan eskola osoan 3 urteik aurrera egiten den bezala.
- Haur Hezkuntza fruta entsaladak egiten dira bai udazkenean, baita udaberrian ere.
- Haur eta Lehen Hezkuntzan, hamaiketako bezala fruta edo frutu lehor ez prosezatuen jatearen garrantzia azaltzen zaie.

3.c- Kirola egitearen garrantzia.

- Igeriketa ikastaroa Lehen Hezkuntzan 5. mailara arte

3.d- OSASUNKUME proiektua

-2. ziklotik aurrera proiektu hau Tutoretzetan lantzen da. Honetan Drogak, botikak, bizitzarako abileziak, laguntasuna, autoestima...

Berrikuntzak

Patioak eraldatzen: Garrantzi handia eman diogu proiektu honi, jolasaldiak ere esparru hezigarriak dira eta egokitze proiektua martxan jarri dugu

ESKERRIK ASKO